

LEITZAKO IHAUTEAK



Egitaraua

Ilbeltzak 24, ostirala

Goizean Erleta eskolako ikasleen kalejira.

Ilbeltzak 25, larunbata

14:00etan Eskelarien bazkaria Aurran 16:00etan auzoetako eskea txistulari eta trikitilariekin. 23:00etan Atekabeltzen festa.

Ilbeltzak 26, igandea

12:00etan gurdien irteera eta mozo-roen kalejira Incansables txaranga-rekin. Txutxu trena ere ibiliko da. 14:30ean bazkaria eskolako jangelan. Ondoren Incansables txaranga-rekin erronda. 16:00-18:00 Txutxu trena. 19:00-21:00 musika Joxe Mendizabalen eskutik karrapean.

Ilbeltzak 27, astelehena

09:00etan Gorritzaran, Arkixkil, Erreka eta Sakulu auzoetako eskea txistulariekin eta Incansables txaranga-rekin. 17:00etan kalejira plazatik hasita trikitilariekin eta bukaeran

txokolate jana plazan. 19:00-22:00 karrapean Xaibor DJa.

Ilbeltzak 28, asteartea

09:30ean Erasote auzoan eskea herriko txistulariekin. 11:00-14:00 eta 16:00-18:00 puzgarriak pilotalekuan. 18:30ean Atsaure kalejira herriko musikariekin plazatik abiatuta 20:00-21:30 eta 23:30-01:00 Muxutruk erromeria taldea karrapean.

Ilbeltzak 29, asteazkena

17:00etan Ekain pailazoak Arlote bat ikuskizuna eskainiko du Leitzako Herriko Aretoan.



Ihote onak pasa eta txintxo ibili
MILA ESKER ANTOLATZAILEEI

PERITZA
TABERNA

ZORTZIKO
LEITZA - 948 510 720
ONGI PASA IHOTEAK!

gaztelu scl
KALEFAKZIOA · SANEAMENDUA · GASA · ITURGINTZA · KLIMATIZAZIOA
BAITA ZIURTAGIRI ENERGETIKOAK ERE
Landa Behikoa Ind. 21, LEITZA
T. 948 510 086
info@fontaneriagaztelu.com · www.fontaneriagaztelu.com
ONGI PASA IHOTEAK!

ZEURE BURUARI
DENBORA ESKAINIZ ZAINDU
Bizkarreko mina artatzeko, erlaxatzeko eta kirol ondoreko masaje saioak, Ito Thermie saioak eta masaje tailerrak
ihoteak gozatu!
MASAJISTA
Aitziber Bergara
Elbarren kalea, 43, 2. Alifnea
Tel. 646 568 753

Leitzako Udala
Ongi pasa ihoteak!

FISIOETXEA
Ane Egizabal Llata
Fisioterapeuta

ongi pasa ihoteak!

Ariketa terapeutikoak · Osteopatia · INDIBA ACTIV zentroa
K-STRETCH METODOA · Gimnasia Abdominal Hipopresiboa

Uharte Gotzaina, 8 3.C · LEITZA · T. 948 510 730

MAIMUR
ONGI PASA IHOTEAK!

· Prentsa · Opariak · Testu liburuak
· Plastifikatzeak · Enkuadernatzeak
· Inprenta lanak · Fotokopiak

Elbarren, 15 - Herriko Plaza · LEITZA
maimurleitza@gmail.com · T/F: 948 510 146

EROSKI city

Urdaitegia Harategia Arraindegia Frutategia

Tel: 948 510 007 · 948 610 657
Elbarren, 20-71 *ongi pasa ihoteak!*

BEATRIZENEA
TABERNA-JATETXEA

Ongi pasa ihoteak!

menua · otartekoak · kaxuelitik · pintxoak

Mikel Deuna, 2 · Tel: 948 510 991 · LEITZA

EZKAIN
Eraikuntzak S.L.

ONGI PASA IHOTEAK!

☎ 650 910 867 / 948 610 959
☎ 650 910 868 @ ezkain1@gmail.com
📍 Lizarraga, 3 - 31880 LEITZA

LEIMEN S.L.

Era guztietako elektrizitate lanak

LEITZA 628 725 396 Argoitz
MENDILLORRI 628 725 397 David



«Arbola doinuarekin gorputz osoa dantzan hasten da»

AMAIA SAGASTIBELTZA AZPIROZ LEITZAKO IHAUTE ZALEA

«Umorea, alaitasuna, askapena, jendarteko festa» hitz horiek aukeratu ditu Amaia Sagastibeltza Azpirozek ihauteak definitzeko. Lau hitz horietan laburbildu du maite dituen festa horien muina. Etxean ezagutu du umetatik ihaute giroa: «gurasoak atsaurezen ziren eta neroni ere halaxe egiten ninduten. Kontzientzia dudanetik naiz ihaute zalea, oso ihauteri zalea».

Garai bateko oroitzenak bizi-bizirik ditu oraindik: «eguraldi txarrekin askotan, baina karrapea jendez lepo, musikarekin lagunduta dantzan eta atsauretu mordoia izaten zen». Leitzarren artean ezaguna den argazia ere ekarri du gogora: «Jose txo ijitoa (Antimasberes) bertan izaten zen jo eta su dantzan». Orduko atsaureak nolakoak izaten ziren ere nabarmendu nahi izan du: «atsaureak aurpegia estalita: trapu, maskara, adarrak... eta jantziak etxeko arropa zaharrekin, trapuekin eta zarpekin osatuta».

Ihauteen eboluzioa

Pixkanaka, ihauteak ospatzeko beste modu bat hasi zen sartzen: etxeko trapuez gain, erositako atsaureak ere erabiltzen hasi zen jendea, igandetako desfilea egiten hasi zen eta gu ere taberna giroan gehiago ibiltzen

ginen». Denborarekin aldaketa gehiago ere etorri ziren: «egun bat gehitu eta orain ihauteak larunbatean hasten dira. Igandeko gurdien desfileak ere indar handia izan du zenbait urtetan, azken urte hauetan gurdigutxiago atera dira, baina bestelakoak hor gaude bor-bor. Atsaureak ere geroz eta gehiago ikusten dira erositakoak eta baserrietako astelehentako esketik bazkaltzera herrira biltzen dira».

Lau egunez festa

Aldaketak aldaketa, «ahal duen neurrian, topera» bizi ditu Amaiak ihauteak. Horren erakusle da egun horiek egutegian gorritz seinatuak izatea: «opor egunak jasoak izaten ditut lasai ibiltzeko: larunbat arratsaldean, herriko eskea usaintzera arrimatzen naiz, honetan gazteak ibiltzen dira-eta. Igandean, egun guztiko martxa! Astelehenean, eskelariak etxean hartu eta ondoren, ahal badut, neroni ere eskera joaten naiz. Asteartean *kompleto*: eskera joan, arratsaldean kalejira eta gauean parranda, ihauteak errematatzeko».

Ihaute aurreko egunetan, «ordu tikietan» aritzen da atsaurea osatzen. Ganbaran edo etxeko armairuetan bilaka edo haria eta jostorratza hartuta oihalei forma ematen: «ahal

dudan guztia etxeko arropa eta zarpekin moldatzen saiatzen naiz eta behar bada, osagarriak eta telak erosi eta josten ibiltzen naiz». Bere esku balego, horixe bultzatuko luke: «atsaure tradizionalak landuko nituzke gehiago: etxeko arropa, trapu, osagarriekin atsaureak sortzeko ekimena eta orain urte batzuk egin zen bezala Leitzako Zapel haundien atsauren sorkuntza».

Tradizioak eta berrikuntzak bat egin dute ihauteetan eta hori ere bada festa hauen bereizgarri: «baserrietako eskea berezia dela esanen nuke. Burutazio eta xeblekeria asko izaten dira eta giro bikaina. Kanpotik etortzen da jendea, baina herritarren artean sortzen den giro berezi horrek egiten ditu berezi ihauteak». Horri lotuta, badira aldatu ez diren ohiturak: «baserrietako eskea oinez egitea, adibidez, zenbait herritan autoetan ibiltzen dira». Musikak ere badu bere tokia ihauteetan eta badira ihautezaleentzat esanahi berezia izaten segitzen duten doinuak: «Arbola

doinua entzuten dudanean gorputz osoa aztoratzen da, hanketatik hasi eta bururaino, atal guztiak dantzan. Horrekin lotuta, momentu berezia da, eskean ibilitako guztien elkartzea eta elkarrekin herrira sartzea».

Gainera, nabarmendu du ahalegin handia eta gero, astelehenetako baserrietako eskea, herrira garaiz iristea lortu izana «txalogarria» dela: «ohitura honi eutsi nahi badiogu nahitaezkoa da alde guztiak kontuan hartzea. Eskean gabiltzanean, oso kontuan eduki behar dugu, baserri-tarrek etxeko atak irekitzen dizkigutela/ditugula, sukalderraino sartzeko konbitearekin, hortaz, errespetuz jokatu behar dugula inguruan dugunarekin, ohiturak segiko badu».

«BASERRIETAKO ESKEA DA LEITZAKO IHAUTEEN BEREIZGARRIA»



Melo Pinturak koop.
T. 609 873 178
LEITZA
www.pinturasmelo.com
pinturasmelos@gmail.com

ongi pasa ihoteak!

leitzarra taberna

Pintxo aukera zabala!

677 721 688
Uhartetako Gotzaina 2 LEITZA

ONGI PASA IHOTEAK!

OGI BERRI
ARTESANOS PANADEROS
KAFETEGI OKINDEGIA
948 610 974 | LEITZA

Egunero egiten ditugu
PIZZAK

ONGI PASA IHOTEAK!

MAXI VICENTE
ERAIKUNTZAK

ongi pasa ihoteak!

Amazabal, 17 • LEITZA • 606 307 810

Lopenea
Ihote onak pasa!

Elbarren, 47 - LEITZA
606 27 35 34 - 688 64 08 34
www.lopenea.com

BOKATAK · KAXULAK
MENUA · PINTXOAK
PLATER KONBINATUAK

Lirain
Arropa-denda

Elbarren 34, LEITZA

676737856

ONGI PASA IHOTEAK!

Ongi pasa ihoteak!

GAZTAÑAGA
TABERNA

OTARTEKOAK
PINTXO BEROAK
KAXUELAK

948 610 708 - LEITZA

MUSUNZAR
OSTATU-JATETXEA

IHOTETARAKO menu berezia,
bokatak eta hanburgesak

Elbarren, 14 - LEITZA
747 406 968

kide
Aholkularitza

Ongi pasa ihoteak!

Kontabilitate kudeaketa eta aholkularitza
Zerga aholkularitza
Lan aholkularitza
Enpresen sorrera eta jarraipena
Zuzenbide aholkularitza
Beste izapide batzuk

izaskun@kide.eus · www.kide.eus
LEITZA: Landa Ind. 18 - 1 · T. 948 510 990
DONOSTIA: Tolosa hiribidea, 5 - 2 · T. 943 420 348

bai zerbitzariak | Zerbitzua euskaraz



SUNBILLAKO UDALAK
Inauteri zoriontsuak
opa dizkizue
sunbildar eta bisitari guztioi



SUNBILLAKO INAUTERIAK

Egitaraua

Ilbeltzak 24, ortziralea

09:00etan gazteen gosaria Ariztigain kanpinean. **Ondotik** bi taldetan banatuta baserriz baseri ibiliko dira Joxe Angelekin eta Modestorekin. Mendaurreko Fonda ostatuan bazkalduko dute eta Meaka aldekoek Bustitz ostatuan. **16:00etatik 19:00etara** herriko ttikienentzat musika frontoian Inaki Djarekin. Arratsaldean txokolate beroa. **21:30ean** gazteen afaria Fonda ostatuan eta Emakumeen Afaria Ulibeltzak elkartearen. Emakumeen afariaren ondotik sorpresa izanen da.

Ilbeltzak 26, igandea

11:00etan karrozen desfilea Ulibeltzak elkartetik abiatuta, Igandea txarangak girotuta. Desfilean opilak, gaztainak, salda, tortilla eta ardoa banatuko dituzte ikusleen artean. Txartelakere salgai izanen dira. Desfile bukaeran zozketak egingen dituzte plaza inguruan. **14:30ean** bazkaria izanen da Ulibeltzak elkartearen eta bazkari bukaeran txaranga. **Ondotik** dantzaldia Lucianorekin.

ONGI PASA INAUTIKI!

SU EGURRA - PIKETEAK
GARRAIOAK - ITXITURAK
GARBITZE MEKANIKOAK
EGUR ATERATZEAK - ESKABAZIOAK



ALTZURI
MENDI LANAK - GARRAIOA
31791 SUNBILLA
altzuri@gmail.com
www.altzuri.com
M. 699 461 394 - 646 298 568

Zurekin DISEINUAK

KANPO NAHIZ BARNE DISEINURAKO BEHAR DUZUNA, ETORRI IKUSTERA KONPROMISORIK GABE!

SUKALDEAK | LURRAK | ARMAIRUAK
ATEAK | TEILATUAK | EGURLANAK



Kanttonberri, 3 BERA · Tel: 722 52 14 71

Ilbeltzak 25, larunbata

10:00etan gazteen gosaria Bustitz ostatuan. **Ondotik** bi taldetan banatuta etxe etxe ibiliko dira Beñat Mitxelena eta Mikel Maia akordeoilairekin. **17:00etatik 20:00etara** haurrentzako diskofesta egingen dute Ulibeltzak elkartearen J&J Djarekin. **Gauean** gazteen afaria Fonda ostatuan izanen da.



JAVI PETRIRENA
Iturgintza eta elektrizitatea

• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
• EGUR ETA PELLET GALDARAK
• AEROTERMIA
• GASA
• KLIMATIZAZIOA
• EGUZKI PLAKA FOTOVOLTAIKOAK

INSTALAZIOEN FINANTZAKETA % 0 (24 hilabete)
✓ Instalatzaile baimendua

679 354 947
@ jpinstalazioak@gmail.com

ONGI PASA INAUTERIAK!

FONDA OSTATUA

DONIBANE, 7
SUNBILLA

Ongi pasa inauteriak!



«Berezia da adin guztietako jendea inauterietan elkartzea»

IKER URROZ IRIBARREN SUNBILLAKO GAZTEA

Besta, kozinatzea, eta lagunekin egoitea maite ditu Iker Urroz Iribarren Sunbillako gazteak. Administrazio eta finantzako goi mailako ikasketak bukatu, eta Arcelor-Mittal enpresan praktikak egiten aritu da, eta baita lanean ere: «Hagitz gustura egon naiz, aunitz ikasi dut eta lankideekin ere eroso sentitu naiz».

Urtea hasi orduko inauteriei begira paratua da, izan ere besta gustukoa izaki, urteko bestarik maiteenak ditu inauteriak. Sunbildarrentzat inauteriak besta bereziak direla dio Urrozek: «Nahiz eta egun gutxi izan, hagitz giro polita sortzen da herrian, eta gainera, adin guztietako jendea elkartzea hagitz berezia iruditzen zait».

Oroitzapen politikak

Haurra zeneko oroitzapenak ditu barrenean gordeak sunbildarrak: «Lagun guztiak elkartu eta Ulibeltzak elkartean txokolate beroa egiten genuen, eta ondotik, Agerralderekin dantzaldia izaten genuen». Geroztik, momentu berezi aunitz bizi izan ditu inauterietan, baina argi dio: «Ezingo

nuke bat aukeratu, urtero bereziak dira, eta urtero oroitzapen onak izaten ditut».

Besta murgildua egunero

Gaur egun, inauterietako egun denetan hartzen du parte Urrozek: «Ilusio eta gogo aunitzekin bizitzen ditut. Orain, gaztea naizenez, eskean parte hartzen dut ortziralearn eta larunbatean, eta igandean karrozen desfilean ateratzen naiz kuadrilla-koekin». Inauteriak, beraz, ortziralearn hasiko ditu. Badira bi urte eskean ateratzen dela, eta egun «hagitz politik» direla dio: «Ortzirale goizean gosaritik hasten gara, eta gero bi taldetan banatuta eta baserrietara joaten gara, eta egun dena baserrietan eman ondotik, denak elkartzen gara berriz afaltzeko». Larunbatean ere eskean segituko dute, baina, kasu horretan herrian.

Eta igandean izanen dute egun handia, desfilearena. Egun berezia izaten da, aitzinetik denbora aunitz ematen baitute prestatzen: «hilabete bat edo hilabete eta erdi lehenago hasten gara karrozarako ideiak pres-

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

ENERGIA ELEKTRIKOA
SANTZAKO SURETA
SOLAR
SOLUZIOKI PANELEK

Ongi pasa inauteriak! 948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Zalain Ind., 42 Bera

JANARI-DENDA
MARISOL ONGI PASA INAUTERIAK

JANARIAK | TABAKOA | DROGERIA | LOTERIA | PRENTSA
Kale Nagusia 7, 31790 SUNBILLA | T 948450608

669 122 815 Ongi pasa inauteriak!
javierbarra@ibarraeraikuntzak.eus

JAVIER IBARRA ERAIKUNTZAK

Etxebizitza berriak | Zaharbertitzeak
Erreformak | Konponketak
Teilatuak | Harri eta hormigoitako lanak
Mota guztietako igeltseritza lanak

GREMIOEN KOORDINAZIOA - SUNBILLA (NAFARROA)

IRURI MOTOR

ONGI PASA INAUTERIAK!

Aukerako autoak
Turismo eta furgoneten salmenta
4x4 autoetan modelo guztiak | Salerosketa zerbitzua

www.irurimotor.com
T. 948 450 399 · 622 656 280
Iruña-Irun errep. zaharra | SUNBILLA

ukulu
inmobiliaria

Ongi pasa inauteriak!

Lekueder karrika 16, Sunbilla
667 547 445 | xuban@ukulu.es

SUNBILLAKO INAUTERIAK



Lizun
GAZTANDEGIA
ONGI PASA INAUTERIAK!
Sunbilla - Tel: 948 450 862



sasoi
eraikuntzak
Ongi pasa inauteriak!!
info@sasoi.eus - www.sasoi.eus
T.: 948 451 596



larreta lanak sl
IGELTSU PROIEKTATUA
PLADURRA
ISOLAMENDU TERMIKOA
ISOLAMENDU AKUSTIKOA
Bera - Nafarroa
www.larretalanak.com | larretaigeltsua@gmail.com
Gorka Arretxea 627 225 514
Juanen Saralegi 637 921 299

tatzen eta zer egin adosten, eta behin adostuta lehenbailehen dena prestatzen». Aurtengorako ere hasiak dituzte prestaketa lanak, nahiz eta oraindik sobera argi ez duten zer egingen duten azkenerako. «Beharrezkoa gauzak prestatzen hasi gara, karroak eta...».

Inauteriz inauteri

Sunbillako inauteriak bukatuta, herri hori ibiliko da Urroz lagunekin

batera inauterietan, herri batzuetan desfileak ikustera, eta bestara bertze batzuetan. «Inguruko herrietako inauteri guztiak gustatzen zaizkit, baina niretzat gustukoena Ituren-goak, Arantzakoak, Doneztebekoak eta Lantzekoak dira».

Horien aitzinetik, ordea, mezu bat bidali die irakurle denei: «animatu denak Sunbillako inauterietara, giro ederra izanen dugu eta!». Proposamena egina da, beraz!



BIDASOA
GURPILAK - GASOLINDEGIAK
1999. URTETIK

GASOLIOA ETXERA
eramaten dugu

PARTIKULAR ETA GARRAIOLARIENTZAT
ZERBITZU ANITZAK

Ibilgailu guztietarako gurpil eskaintza bereziak
24h-ko asistentziak errepideetan
IAT aurreko zerbitzua dohainik
Gasolindegia 24h irekita

609 446 693 - 679 204 872
bidaso@neumaticosbidaso.es
www.neumaticosbidaso.es

Eska ezazu BIDASOA txartela erregaian deskontuak izateko

Alkaiaga Industrialdea
Ziobi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)
948 625 663 - 636 293 125

Ongi pasa inauteriak!

Noain-Eskiroz Industrialdea
Y Kalea 10
31110 Noain (Nafarroa)
948 312 239 - 679 204 872



ZUBIETA, ITUREN ETA AURTIZKO INAUTERIAK

Egitaraua

Ilbeltzak 27, astelehena

Goizean gosaldu eta Zubietako joaldun, mozorro eta karrozek Aurtitz bisitatuko dute. Salda hartu eta Iturenera joanen dira. Desfilea eginda, bakoitza bere herrira joanen da bazkaltzera. Arratsaldean musika izanen dute eta gauen afaria. **Iturenen** Holako taldea.



Ilbeltzak 28, asteartea

Goizean gosaldu eta iturendarrek zubietarrei bisita egingen diete, Aurtitzen geldialdia eginez. Salda hartu, desfilea egin eta bakoitza bere herrira bazkaltzera. Arratsaldean musika izanen dute eta gauen afaria.

Otsailak 1, larunbata

Iturenen kontuen eguna: eguerdian dantzak eta herri kirolak izanen dira, bazkaria Julio Soto eta Joanes Illarregi bertsolariekin eta musika gaue-ra arte. **Aurtitzen** zahar afaria eta dantzaldia akordeoilariarekin.

Ilbeltzak 29, asteazkena

Zubietan kontuen eguna izanen dute: goizean puska biltzea eta gosaria eta arratsaldean joaldunak. **Iturenen** bazkaria eta ilunabarrean puska biltzea, afaria eta Holako taldearen kontzertua. **Aurtitzen** bazkaria, puska biltzea eta afaria.

Otsailak 2, igandea

Aurtitzen kontuen eguna izanen dute: bazkaria eta inauterien amaiera.

Iturenen Andoni Mitxelena izanen da akordeoilaria, **Zubietan** Modesto eta **Aurtitzen** Beñat Mitxelena.



Iturengo eta Zubietako Udalek inauteri zoriontsuak opa dizkizueite herritar eta bisitari guztiei



ITURENGO UDALA



ZUBIETAKO UDALA

Asteazkenetik igandera irekita.



AURTIZKO OSTATURIA

Errazioak, eguneko menuak, bokatak, pizzak, hanburgesak, plater konbinatuak...

Beja: 18 Aurtitz | ☎ 848 68 05 57 | aurtitzkoostatua@gmail.com

ONGI PASA
INAUTERIAK!



EHEVERRIA
ZURGINDEGIA



PVC LEIHOAK

ABANTAILAK

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE



Leitza errep. - 31745 ITUREN
M. 676 393 996 · T. 948 388 455 · F. 948 456 164
carpinteriaecheverria@yahoo.es


**AINHOA
ALTZUGUREN MITXELENA**
 A B O K A T U A
 Dibortzioak | Kontratuak | Arazo administratiboak
 BERA | M. 630 972 189 | ainhoaaltzuguren@gmail.com

Ileaipaindegia
EIDERA
 Estetika


Asteartea | ortzeguna | larunbata: 09:00 - 14:00
 Asteazkena jarraian: 11:30etik aitzinera
 Ortziralea: 15:00 - 20:00
 Kontsejo, 6 | ITUREN | T. 630 633 445


**MADERAS
SANTESTEBAN**

Ongi pasa
inauteriak!

Mendi lanak Pinuak erosten ditugu
Bigak | Montajea obran
 Teilaturako egiturak
 Izei, haritza eta douglas edo laminatua
Osagarriak | Autoklabe tratamendua


www.maderasantesteban.com

Arrazo parajea, ZUBIETA | 948 45 08 77
 info@maderasantesteban.com


egurpellet


PELLET ZAKUAK ETXERAINO

egurpellet.com
 info@egurpellet.com
 T 623 246 300

«Inauteriak gauza ederra dira, barrenean eramaten ditut»

TOMAS IBARRA INDAKOETXEA ZUBIETARRA



THEKLAN - WIKIMEDIA

Zubietan bizi ez bada ere, herrian aski ezaguna da Tomas Ibarra Indakoetxea, *Kokoetxeko Tomas* (Zubieta, 1945). Haurra zela utzi zuen sorterrria, 11 urte bete berriak; «aitaren lanagatik Gipuzkoara joan ginen bizitzera». Hala ere, «Zubietan etxea dut oraindik eta harreman estua dut herriarekin. Ia astebururo joaten naiz».

Ongi pasatzeko egunak

Zubietako inauteriak «gauza ederra dira, sentitu egiten direnak eta barrenean eramaten ditudanak, bai nik eta baita zubietarrek ere. Betitik egin dira eta herriarenak dira, denok parte hartzeko».

Ttikitan ongi ezagutu zituen inauteriak; «etxeko ataritik ikusten ginen, kanpora atera gabe. Bestela zanpatu egiten gintuzten! Errege bezperan ttikienak ateratzen ginen, eta hor bai ibiltzen nintzen». Horrez gain, «gazteak etxetik etxe ibiltzen ziren bazkalondoan, gure anai zaharrena zena ere bai, eta oso polita zen».

Geroztik, ez zuen inauterietara bueltatzeko aukerarik izan 20 urteak

bete arte; «1966an lehenbiziko aldiz atera nintzen joaldun, eta hurrengo urtean ere, kasualitatez soldaduskan baimena eman zidatelako». Fabrikari lanean aritu zen 12 urtez, eta Ameriketara artzain joan zen lau urtez. «Hortaz, gaztetan ez nituen gehiago inauteriak egin. Ameriketatik bueltan berriz ere joaten hasi nintzen, baina ez nintzen joarekin ateratzen. Gauzak uzten direnean, berriz ere hastea asko kosta egiten da. Lotsa ematen zidan».

«Bizi guzian izan nuen berriz ere hasteko gogoia», eta 47 urterekin lotsak alde batera uztea eta desfilean parte hartzea erabaki zuen: «gaur bai, eta kitto». Azaldu duenez, ordurako egoera asko aldatu zen; «inauteriek, bere horretan, berdin segitzen dute, baina festa egiteko modua aldatu da. Haurrak kanpora ateratzen dira, gu ez bezala. As-tazakilak izaten segitzen dugu, baina orden baten barrenean». Gainera, «orain desfilea gauza serioa da, ordenatua, eta ahalik eta hobere egiten dena. Joaldun eta mo-zorro pila ateratzen dira».

Desfilean ateratzen hasi zenetik, 69 urteak arte urtero atera zen joaldun, «eta gero sei-zortzi urtez aritu nintzen artzain. Desfilearen erdian ibiltzen nintzen, pausoa eramaten». Aitoru duenez, «artzainaren papera itxurakeria bat da, bakarren batek pausua galtzen badu laguntzeko pentsatua. Baina joaldunek hain serio hartzen dute desfilea, ez dutela beharrik izaten, eta norbaitek pausua galduz gero, ondokoak segidan esaten dio». Hala ere, «norbaitek egin beharreko gauza da, serio hartzeko konpromisoa».

Gibelera begira, «oso gustura atera izan naiz. Beti esan dut lekuetara berandu xamar ailegatu naizela, eta gaztetan ezin izan ditut egin herrikoek egindako gauzak. Horregatik, niretzako oso inportantea izan da».

Izan ere, «Zubietatik atera nindutenean gauza asko galdu nituen, eta traumatikoa izan zela ere esanen nuke. Aita Lezon aritzen zen lanean, eta haurra nintzela hil egin zen. Entierroa eramán ninduten, eta hurrengo astean jada han hasi nintzen eskolan. Orduko 11 urteak ez ziren oraingo 11 urteak, ez genituen matematikak ongi ezagutzen, baina bagenekien bizia zer zen, puntatik puntara».

Beste modu batean disfrutatzen

Orain, berriz, «inauteriak ikustera joaten naiz. Beste modu batera bizitzen dira, baina oso polita da». Izan ere, desfilea baino gehiago dira inauteriak; «puska biltzea,

adibidez, oso polita da. Gainera, 13 otordu ditugu, eta hor izena eman eta gustura ibiltzen gara. Ongi pasatzen dugu».

Astelehena da gehien gustuko duen eguna; «joaldunak Iturenera joaten direnean. Zubieta oso ttikia da, plaza segituan betetzen da eta ez da deustarako lekurik izaten». Hala ere, «hori Iturenen ere gertatzen hasia da, gero eta jende gehiago joaten baita ikustera. Pentsa, 20 urte nitue-nean, plazan gu bakarrik egoten ginen, eta orain ezin kabituz! Foralek ere behin esan ziguten: *vais a morir de éxito*».

Gaurko gazteak «erabat inplikatzten dira inauterietan, gehiegixko, esanen nuke. Ttikitatik hasten dira, eta horrek aspertzeko arriskua duela iruditzen zait. Baina mundu guztia aritzea oso polita da, zakarkeria sobera egin gabe. Gero eta finagoak gara, baina hala ere, joatekoak direnei beti esaten diet arropa zaharrekin joateko, badaezpada».

Etokizunera begira, «asteburu eta ahal dugun guztietan herrira joaten segituko dugu, etxe ingurua txukun edukitzeko». Zubieta «lasai egoteko» lekua dela dio, «nahiz eta etxean beti dugun egiteko zerbait, lanik ez dugu falta».

«ASTAZAKILAK GARA, BAINA ORDEN BATEN BARRENEAN»



AINARA MINDEGIA

ITTUNGO
HERRIKO OSTATUAK

INAUTE ON BATZUK OPA DIZKIZUE

☎ 948 451 346

EROSI ONLINE

www.lamascara.es

LA MASCARA

Inauterietako mozorroetan den-dena daukagu
Era guztietako osagarrien salmenta
Makillaje profesionala

www.lamascara.es
mascara@lamascara.es

Abejeras, 6 | IRUÑEA | T./F. 948 25 00 04

BEROTZA

ITURGINTZA, BEROKUNTZA
ETA ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK

948 450 063-620 886 443
info@berotza.es-www.berotza.es
31745 ITUREN (Na)